

Txostena



beaz
2016

Aurkibidea

Diru-laguntzen kudeaketa	4
Zerbitzuak	6
Inkubagailuen kudeaketa	12
Ekimen sektorialak	18
Inpaktua enpresa egituran	22
Ekintzailtza eta berrikuntza sistemako eragile aktiboa	23
Eusko Jaurlaritz-SPRIrekin batera egindako jarduerak	23
Bilboko Udala-Bilbao Ekintzarekiko lankidetz-eremua	23
Bizkaiko Foru Aldundia eta Masschallenge - CICen arteko lankidetz-eremua	24
Ekintzaile eta enpresa berritzaileen errekonozimendua	26
Etekin operatiboa	27

Beaz Bizkaiko Foru Aldundiaren sozietate publiko bat da eta haren helburua enpresei eta ekintzaileei proiektu berriak sortzeko, berritzeko eta nazioartera zabaltzeko egiten dituzten ahaleginetan laguntzea da.

Beaz Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Foru Sailaren menpean dago eta haren helburua bat dator Sailaren xede nagusiarekin: jarduera ekonomikoa eta lanpostu kualifikatuak haz daitezen laguntzea.


Helburu horiek lortzeko Beazek Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailaren diru-laguntzak kudeatzen ditu eta, gainera, beste zerbitzu batzuk eta inkubagailuak ere baditu. 44 langileko taldea lanean ari da enpresei eta ekintzaileei laguntza emateko.





Diru-laguntzen kudeaketa

Beazek, Bizkaiko Foru Aldundiaren erakunde laguntzaile legez, Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailak Bizkaiko ekintzaile eta enpresen esku jartzen dituen programen zehazketa, balioztapen, erabaki eta kudeaketan esku hartzen du.



Kudeatutako programak

- Enpresa proiektu berritzaileen garapena // Ekintzaile
- Enpresa berritzaile berrien sorkuntza
- Berrikuntza sustatzeko plana
- Nazioartekotze programa
- ETEetan inbertsio aurreratua egiteko laguntza. EETIFIL
- Artisautza
- Bizkaia Sortzailea
- Bizkaia Digitala
- Ekintzailtza eta gizarte berrikuntza
- 3i

Kudeatutako programak: 10

Kudeatutako programetan adjudikatutako fondoak: 15.396.502,3 €

Aurkeztutako proiektuak: 841

Onartutako proiektuak: 560

Hurrengo taulan enpresen sorkuntza, berrikuntza eta nazioartekotzerako zeharkako diru-laguntzen inpaktua agertzen da:

Alorra	Onartutako proiektuak	Aurreikusitako lanpostu sorrera 3 urtera	Aurreikusitako fakturazioa 3 urtera
Ekintzailtza	110	757	89.411.203€
Berrikuntza	114	234	69.919.053€
Nazioartekotzea	113	213	67.948.841 €
3i	12	88	41.572.315 €
Inbertsiorako laguntza	86		


Oharra: Programa sektorialen inpaktua (Bizkaia Sortzailea, Bizkaia digitala, Artisautza, eta Gizarte Ekintzailtza eta Berrikuntza) ondorengo atal batean azalduko da.





Zerbitzuak

Beazek zenbait zerbitzu eskaintzen ditu enpresen sorkuntza, hazkunde eta finkatze-prozesuan funtsezkotzat jotzen dituen alderdiak indartzeko.



Zerga-kalifikazioko txostenak

2016an, laugarren urtez, Beazek Berrikuntza teknologikoaren zioz Sozietateen Gaineko Zergan kenkariak eskatzeko kalifikazio txostenak egin zituen. Zerbitzu hau Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailak eta Beazek sinatutako lankidetzaren hitzarmenaren fruitua da.

Egindako txosten kopurua: 119 espediente

Enpresa kopurua: 90

Aplikaturako kenkariaren aurreikuspeneko zenbatekoa: 1.193.637 €

Bizkortzea

Enpresak bizkortzeko zerbitzuaren hirugarren urtea. 2014 eta 2015ean bizkortu ziren proiektuekin izandako balantze positiboaren ondorioz Beazek zerbitzua zabaldu zuen 2016. urtean, hazteko gaitasun handiko proiektuak dituzten beste antolakunde batzuetan ere erabiliz.

9 enpresa bizkortuta

Fakturazioaren batez besteko gehikuntza 1-2 urtean: %42

Lanpostuen batez besteko gehikuntza 1-2 urtean: %29

Barne-ekintzailtza

2015ean Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak abian jarri zuen Barne-ekintzailtza bultzatzeko ekimena hiru foru aldundien eta euskal BICen laguntzarekin; Beaz zentro horietako bat da. Antolakundeetatik bertatik negozio berriak sortzeko helburuarekin sortu zen ekitaldiaren barruan zabalkunde, gaikuntza eta networking jarduerak eta adituen laguntza daude.

Bizkaiko 11 enpresa eragilerekin lan egin dugu: Airlan, Artech, Batz, Cikautxo, Euskaltel, Gestamp, ITP, Petronor, Grupo Urbegi, Velatia eta Vicinay Cadenas.

Bizkaiko 28 enpresak parte hartu dute antolatu diren gaikuntza eta networking jardunaldietan.

12 enpresari laguntza eman diegu Lehiabide eta Barne-ekintzaile programen bidez.

Laguntza jaso duten Bizkaiko barne-ekintzailtza proiektuek 15,6 milioi € sortzea aurreikusten da.

400 pertsona inguru zabalkunde jardunaldietan.

100 enpresa baino gehiago BIC zentroek bisitatuak.



Networking

Lankidetzza-proiektuak hautemateko eta interes berdinak dituzten enpresen arteko harremana errazteko, 2016an Networking zerbitzuak bilera bat antolatu zuen enpresa eragile eta erreferentea den EDPrekin eta 18 enpresak parte hartu zuten, batez ere enpresa txikiak eta startupak.

Antolatutako saioak: 1

Bertaratutako pertsonak: 18



SLen sortze telematikoa

Enpresak telematikoki sortzeko zerbitzua funtzionatzen egon den hirugarren urtea; finkatu egin da eta egindako eskaerak %50 handitu dira. Izapidetzeaz gain, ekintzaileen proiektuez infromatzeko eta aholkatzeko zerbitzuak ematen dira.

Informazio eta aholkularitza: 44 enpresa

Sortutako SLak: 20

Finantzaketa-Diru-laguntza mapa

ETEEK bultzatutako proiektuetan finantzazio handiagoa lortzeko, Finantzaketa-Diru-laguntza mapa zerbitzuak bilerak antolatzen ditu CDTI, ENISA, eta SPRI taldeko teknikariek.

Antolatutako saioak: 3

Jardunaldietara bertaratutakoak: 74

Kofinantzatzeko aurkeztutako proiektuak: 13

Enpresek lortutako finantzazioa: 3.471.120 €



EEN Sarea

Beazek ETEen nazioarteko lankidetzak bultzatzeko ekitaldiak antolatzen ditu beste batzuekin batera; Europako homologoekin elkarlanean jardun nahi duten ETEei aholkularitza ematen die eta bazkideak bilatzen dizkie; eta Saretik eskaintzen diren zerbitzuei zabalkundeak ematen die hainbat bide erabiliz.

Hemengo/eskualdeko ekitaldiak beste batzuekin batera antolatzea: 4

Hemengo/eskualdeko ekitaldietan parte hartu dutenak: Bizkaiko 36 enpresa

EEN Sareak enpresei eskaintako beste zerbitzu batzuk: 46 enpresa

2016an Instrumento pyme programako diru-laguntzei buruzko zabalkundeak sartu da, Horizonte 2020 estrategiaren barruan.



BEAZko guneak

Beazek enpresa eta ekintzaileen esku jartzen dituen guneetan gero eta jarduera gehiago antolatzen da. Hainbat jarduera-mota burutzen da -horietako asko sormen-arloak bultzatuak-, eta gelen erabileran landinamika desberdinak erabiltzen dira Beazko guneetan, haien ikusmirak zabalduz.

Bizkaia Sortzailea Guneak: 95

Bizkaia Sortzailea guneak jardueretara bertaratutakoak: 2.128

Beazko gelen erabilera: Kanpoko eragileekin edo kanpoko eragileen artean egindako bilerak: 2.632 pertsona



Bizkaia Mentoring Network

Beazek, Cebek, Deusto Business Alumni eta Euskalit-ekin batera kudeatzen duen ekimen honek lehenengo 16 mentoring prozesuen definizio eta garapena bultzatu du. 45 lagunek osatzen duten aholkulari-sarea dago eta helburua hazteko ahalmen handia duten proiektuak bizkortzen laguntzea da.

Erregistratutako aholkulariak: 45

Mentoring prozesuak: 16

Enpresa proiektuen hedapena

Beazen hedatze-kanalak bultzatu eta dibertsifikatu egin dira Bizkaiko enpresa eta ekintzaileen jardura eta proiektuei zabalkundea emateko. 2016an, bereziki, bultzada eman zitzaion bideoak argitaratzeari eta gizarte sareetan presentzia izateari.

Bisitaldiak webera: 42.727

Hileroko buletinak: 12

Argitaratutako bideoak: 37

Gizarte sareak: Twitter, LinkedIn, Youtube, Flickr: 8.318



Prestaekin

Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Saileko Enpresa Sustapenerako Zerbitzuak eta Beazek, 2016an, abian jarri dute “Prestaekin” gaikuntza-programa, 2015 eta 2016an Enpresak Sortzeko foru programetan laguntza jaso duten ekintzaileei zuzenduta. Ekimenaren helburua Aldundiak enpresa berri bat sortu edo proiektu berritzaile bat garatu duten pertsonari ematen dien babesa hobetzea da, hainbat gaitan jakintza sustatuz: negozio-eredua, marketin digitala, komunikazioa...

5 gaikuntza-modulu

67 pertsonak parte hartu dute, 45 enpresatakoak

Gaikuntza-moduluak

- Lean ekintzailera
- Merkaturatze eta marketin digitala
- Enpresen balorizazioa (Venture Academy)
- Komunikazioaren gaitza proiektua
- Elkar-sorkuntza eta parte-hartze aktiboa



Inkubagailuen kudeaketa

BIC Bizkaia

BIC Bizkaia teknologia bio-mikro-nanoetan, manufaktura aurreratuan eta teknologia garbietan espezializatutako inkubagailua da, Eusko Jaurlaritzak, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Bizkaiko Parke Teknologikoak sustatua eta Beazek kudeatua.

2014ko urrian sortu ondoren iaz bigarren urtea bete zuen eta, %87ko okupazio-maila lortzeaz gain, berebiziko garrantzia eman zaio Bicen dauden startupak bizkortzeari, enpresen profilari egokitutako bizkortze-zerbitzuaren bidez.

Inkubatutako enpresak: 20

Enplegua inkubatutako enpresetan: 300

Inkubatutako enpresen fakturazioa: 20.000.000€

Jardunaldiak: 8

Jardunaldietara bertaratutako pertsonak: 210



Jardunaldiak

- “Pitch&Pintxo” jardunaldia Ticketbis-ekin
- “Matematika eta Berrikuntza enpresa inguruan” jardunaldia, BCAMen laguntzarekin.
- Lumiker enpresaren showrooma eta programaren aurkezpena
- The Art of Discovery enpresaren aurkezpena
- Novattia enpresako ordezkarien ekitaldia
- Ikaskuntza kolaboratiboaren oinarriak
- Workshopa ConneXion Bilbao-rekin: Aukerak identifikatzea Bic Bizkaiako enpresen artean.
- Bind 4.0. trebakuntza jardunaldia



Inkubatutako enpresak

Aadvantage Lab S.L.
Addimen Bizkaia S.L.
Aleovitro S.L.
Biofalmik S.L.
Biofungitek S.L.
Horus Pharma Ibérica S.L.
IMG Pharma Biotech S.L.
Ingran Engineering S.L.
Kimiker Quemical Research S.L.
Lumiker Aplicaciones Tecnológicas S.L.

Novattia Desarrollos S.L.
Oceantec Energías Marinas S.L.
Osasen Sensores S.L.
RDT Ingenieros Bilbao S.L.
Saionaimer S.L.
Sendabio S.L.
Stemtek Therapeutics S.L.
The Art of Discovery
Tubacex Innovación AIE
Vacunek S.L.



KBi Digital

KBi Digital ekintzailletza digitaleko proiektuetarako inkubagailu aurreratua funtzionatzen egon den bigarren urtea izan da. Bilboko Udalak eta Bizkaiko Foru Aldundiak elkarrekin bultzatu eta Bilbao Ekintza eta Beazek kudeatzen dute. 2016an inkubatutako enpresetan haien hazkunde, bideragarritasun eta merkatuko posizionamendua garatzeko estrategia finkatu zen.

KBi Digitalek badu bereizgarri bat, bizkortze-zerbitzu pertsonalizatua, hau da, ekintzailletza digitaleko adituek laguntza ematen diete startupeei honelakoxe proiektuen merkaturatze eta eskalabilitatean kritikoak diren gaiak identifikatzen eta abian jartzen. KBi Digital, bertan kokatutako startupak bizkortzen laguntzeko berariazko zerbitzuak dauzkan ingurunea da. Aholkularitza pertsonalizatua emateaz gain badu trebakuntza programa bat enpresen profilari egokituta eta proiektu berriak erakartzeko dinamizatzeko programa ere.

Okupazioa: %80,56
Inkubatutako enpresak: 19
Profesionalak: 3
Enplegua inkubatutako enpresetan: 58
Fakturazioa inkubatutako enpresetan: 1.500.000€
Trebakuntza eta zabalkunde jardunaldiak: 5
Jardunaldietako parte-hartzea: 81 parte-hartzaile

Jardunaldiak

- Mobile engagement, "Adbloker" en arreta bereganatu
- 360°ko komunikazioa
- Webetik zerbitzu digitalen kanal anitzeko eredura
- Newsletter-etik marketinerako e-mail planera
- SEOa zure webari etekina ateratzeko bide bezala

Inkubatutako enpresak

Decoramus

Markos Espina

Solidarters

Fair Saturday

ByVapps

Minishoes

Wegow

Restuento

Tucho-Luca

Lattip

Weereel

Onura Bat

Dog Vivant

Koala Studios

Iñaki Arrieta

Wikiopps

Worktel

Venuel Place

Kasitoko

Profesionalak

Markos Espina

Onura bat

Iñaki Arrieta

Design Kabi

Design Kabi negozioia zehazteko eta enpresaren bideragarritasuna aztertzeko fasean dauden enpresa proiektuetarako inkubagailua da, Beazen kokatua. 2016an bertan kokatutako enpresa proiektuek aukera izan dute enpresa merkaturatzeko lehenengo urteetan dauden ekintzaileei zuzendutako Prestaekin gaikuntza-saioetan parte hartzeko. Halaber, azpimarratzekoa da Design Kabi egokitu egin dela PlayStation Camp-en lehen edizioa bertan kokatzeko, bideo-jokoaren sektoreko startup berriak merkatura hel daitezkeen bultzatzeko helburuarekin.

Urtean inkubatutako proiektuak: 20

Prestatze-saioak: 5

Inkubatutako proiektuak

Adibe

Asoma UAV

Auto Reman Lanteko

Geisher

KIB08

Present for you

Tellmewow

Vostok Electric

White Spell

Vibio

Innovaero

Less is plus

Material ConneXion Bilbao

Nettin

Smargune

Stockare

Transporter

Ema Trendy

Camisetas piel con piel

Burning Games



Zitek

Zitek EHUK, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Beazek sustatzen duten ekimena da eta haren helburua EHUren Bizkaiko Campusean ekintzailtza-kultura zabaltzea eta enpresa berritzaileak eta teknologia oinarria dutenak sortzea da. Horretarako hiru unibertsitate haztegi dauzka -Leioa, Portugalete eta Bilbon-, eta baita Ekintzailtza kultura zabaltzeko programa, 2015ean Enpresa Sustapenerako Europako Sariaren finalista eta espainiar Estatuko finalean irabazlea izan zena. 2016an Ekintzailtza Gela berria zabaldu da Sarrikoko Enpresa Zientzia fakultatean, ZITEK estrategiaren barruan.

Inkubatutako enpresak: 25
Ekintzailtza kultura programa: 18 ekimen
Enplegua inkubatutako enpresetan: 67
Fakturazioa inkubatutako enpresetan: 2.400.000€



Inkubatutako enpresak

Hidrógeno del Norte, S.L.
Meiquer ingeniería, S.L.
MetaUniversidad
Nanoinorganic and Magnetic Particles, S.L.
Servicio Diagnóstico de Patología Oral y Maxilofacial, S.L.
3RLABS SL
Arquinea
Basquet, C.B.
Flying Dodos
Green Proiekt, C.B.
InCharge Ibérica, S.L.
Insignia, S.L.
Lamarencalma
Norlock, S.Coop.
Social media consulting
Uknatura
Noismart
Yatta
Edurobotic
Gyk
Sogestraf
Nakusarbe
Alex & Alex
Ibine
Keynetic Technologies

Ekintzailtza kultura bultzatzeko programako

ekimenak: 18

Ekinduz lehiaketa
B-CUBES lehiaketa
Abiatu lehiaketa
Think Big lehiaketa
Zitek programa hedatzeko hitzaldiak: Graduak, Masterrak, Biofisika U...
Google Activaten parte hartzea
Lanbide orientabiderako jardunaldiak
Hasten Ikasten mintegiak
Ikasberri mintegiak, Zientzia eta Teknologia / Arte Ederrak
Klaus North biltzarra
Zientzia Asteko "Ekintzailtza eta sormena" lantegia
Talentia ekintzailtza lantegia
!. Sustainable Weeks foroa
Xtart-up Xperiences
B-Ventures azoka
Prestik azoka
Librecon azoka
Zitek Coffees

Deusto kabi

Teknologia oinarriko haztegi hau Bizkaiko Foru Aldundiak eta Deustuko Unibertsitateak bultzatzen dute unibertsitate spin-offak bultzatzeko xedeaz. Beazek bertan ekintzaileei aholkularitza eta laguntza zerbitzuak eskaintzen dizkie.

Ekintzailetza kultura bultzatzeko ekimenak

- 8 Deusto Startu Up mintegi
- YUZZ programa
- 4 finantzazio programa
- Ekintzaileentzako negozio ereduak
- Entrepreneur Bootcamp Digital

Inkubatutako enpresak: 16

Enplegua inkubatutako enpresetan: 53

Fakturazioa inkubatutako enpresetan: 2.300.000€



Edooca, S.C.P.
Techabout, S.L.L.
Social Media Technologies, S.L.
Beclever, S.L.
Unexpendables, S.L.
The human's movement, S.L.
Linked Knowledge, S.L.
MHOP. S.L. (Nagore de los Ríos)
Easi technologies and consulting services, S.L.(Symplio Lifestyle Technologies S.L. (A1/A2))
Ikuspyme S.L.
Appkideak S.L.
Nexmachina Solutions, S.L.
Grunver S.L.
Not Consulting (Shk Ways)// SHM
Endurance Ventures S.L. //
Quality Sensors Network S.L
Planed Education S.L, (Alex Hiriart)



Ekimen sektorialak

Zenbait sektore eta arlotako jarduerak, berrikuntza eta nazioartekotzea bultzatzeko diru-laguntza sektorialak kudeatzen ditugu.



Bizkaia Sortzailea

Beazen ekite-ildoetako bat sormen-sektorea bultzatzeari dagokiona da eta helburu hau zenbait tresnaren bitartez gauzatzen da. Horien artean daude Bizkaia Sortzailea foru programa, BiDCren idazkaritza nagusia kudeatzea eta hemengo eta nazioarteko ekitaldiei laguntza ematea.

Bizkaia Sortzailea programa

2016an Beazek, bosgarren urtez jarraian, Bizkaiko Foru Aldundiaren Bizkaia Sortzailea programan parte hartu du. Honen helburua bideo-joko, ikus-entzunezko, moda, produktuen diseinu eta arkitektura sektoreetan enpresa proiektuak sustatzea da.

Aurkeztutako proiektuak:	35
Onartutako proiektuak:	25
3 urtera proiektatutako enplegua:	87
3 urtera proiektatutako fakturazioa:	6.300.000€
Diru-laguntzaren zenbatekoa:	700.000€

BIDC

Beaz, Bilbao Ekintzarekin batera, BiDC - Bilbao Bizkaia Design Council-en idazkaritza teknikoaz arduratzen da. Bilboko Udalak eta Bizkaiko Foru Aldundiak abian jarri zuten ekimen honen helburua sormen-industriak Bilbo eta Bizkaiaren garapen ekonomiko eta nazioarteko proiektiorako faktore legez sustatzea da.

BiDC sormen-sektore ezberdinetako 216 enpresaren foroak eta ekonomia, kultura eta arlo akademikoetako hemengo 30 erakunde esanguratsuk osatzen dute. 2016an Beaz denekin harremanetan egon zen elkarrekin ekimenak antolatzeke eta sormen-industriak bultzatuko dituzten proiektuak garatzen elkarlanean aritzeko.

2016ko azaroaren 17tik 30era BiDCk Bilbao Bizkaia DWeek-en bigarren edizioa koordinatu du. Hamar sormen-arloekin lotutako 40 ekitaldi baino gehiago –bertokoak zein kanpokoak– izan ziren guztira, 20 eragile baino gehiagok sustatuak. Hamabostaldi horretan BiDCk, halaber, enpresen urteroko laugarren foroa eta Cities & Design eta Industries & Design jardunaldiak antolatu zituen. DWeek-en bigarren edizioan azpimarratzekoa da Dzone antolatu zela Azkuna Zentroan, sormen-sektoreen eta herritarren arteko lankidetzarako eta topaketarako gune bezala.



2016n laguntza jaso duten nazioarteko ekitaldiak: 6

- Fashtech
- Bilbao Maker Faire
- Bilbao Bizkaia Web Fest
- Fun & Serious Game Festival
- Selected from Bilbao 2016
- AzPlay 2016



UNESCOren sormen-hiriak

Bilboren bigarren urtea izan da UNESCOren Sormen-Hiri legez, diseinuaren arloan. 2016an UNESCOren Sormen Hirien Sarea osatzen duten gainerako hiriekin harremanetan egon zen Beaz, eta bereziki Diseinu azpisarekoekin. Azaroan, DWeek-en barruan, Graz (Austria) eta Torinoren (Italia) lankidetzak izan zen eta sormen-industriek gizarte berrikuntzako proiektuetan elkarrekiten duten adibide arrakastatsuek azaldu zituzten.

Artisautza

2016an Beazek, laugarren urtez, Bizkaiko Foru Aldundiak artisautza sektoreari laguntzeko daukan programan parte hartu zuen, Bizkaian artisautza sektorea dinamizatzeko eta berpizteko artisau elkarte eta enpresei laguntza emanez.

Artisau enpresek aurkeztutako proiektuak: 64

Artisau elkarteek aurkeztutako proiektuak: 7

Onartutako proiektuak: 68

Diru-laguntzaren zenbatekoa: 326.000€

Gizarte berrikuntza

2016an Beazek, laugarren urtez, Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailak, eta Gizarte Ekintza Sailak, gizarte enpresa edo erakunde berritzaileen proiektu berriak abian jartzen laguntzeko bultzatzen duten Ekintzailtza eta Gizarte Berrikuntza Programaren kudeaketan parte hartu zuen. Ordezkaritza gehien duten eremuak zahartze, ezgaitasun eta garapen iraunkorrari zuzendutako gizarte-osasun zerbitzuak dira.

Gainera, elkarrekin lan egin da urte osoan lan-plan batean eremu horretako enpresek zabalkunde, gaikuntza eta lankidetzan dituzten beharrianak estaltzeko. Azpimarratzekoa da ere honelako proiektuen inpaktua neurtzeko tresna berri bat definitu dela eta 2017tik aurerra aplikatzen hasiko da.

Aurkeztutako proiektuak:	31
Onartutako proiektuak:	20
3 urtera proiektatutako enplegua:	167
3 urtera proiektatutako fakturazioa:	7.900.000€
Diru-laguntzaren zenbatekoa:	461.000€

Bizkaia Digitala

2016an hirugarren urtez parte hartu zuen Bizkaia digitala programaren kudeaketan, gauzen Internet deritzona enpresen hainbat eremutan ezar dadin laguntzeko; izan ere, ekoizkortasuna hobetzeko, kostuak gutxitzeko, eraginkortasuna handitzeko, negozio-eredu berriak gauzatzeko eta helburuko kontsumitzaileengana heltzeko aukera ematen baitu. Lagundutako proiektuak, 4.0 fabrika eta prozesuen hobekuntza, Smart cities, eta kontsumo produktuak eta herritarrak eremuetakoak dira, hurrenez hurren.

Aurkeztutako proiektuak:	16
Onartutako proiektuak:	12
3 urtera proiektatutako enplegua:	58
3 urtera proiektatutako fakturazioa:	4.900.000 €
Diru-laguntzaren zenbatekoa:	478.000€



Inpaktua enpresa egituran

Beazek Bizkaiko Foru Aldundiaren Enpresa Berritzaileak Sortzeko programaren laguntzaz sortutako enpresa berritzaileen emaitzak ebaluatzen ditu urtero. 2016an egindako ebaluazioa 2011-2015 denboraldian sortutako enpresei dagokie.

Startupen emaitzak 2011-2015

Enpresa kopurua	183
Biziraupen-indizea	%85,51
Fakturazioa guztira	147.412.000,50€
Batez besteko fakturazioa	1.009.671,30€
Enplegua guztira	954
Batez besteko enplegua	6,53
Kapital soziala guztira	24.329.331,77€
Batez besteko kapital soziala	166.639,26€
Guztira esleitutako diru-laguntzak	10.539.160€



Sortutako enpresak oso sektore ezberdinetakoak dira, baina ordezkatuago daude teknologia edo ezagutza-zerbitzu aurreratuak eskaintzen dituztenak. Horien artean nabarmendu egiten dira jarduera profesional zientifiko eta teknikoak (%29), informazio eta telekomunikazioak (%28) eta manufakturako industria (%18).

Bizkaiko Foru Aldundia eta Masschallenge - CICen arteko lankidetzaren eremua

2015ean Bizkaiko Foru Aldundiak lankidetzaren akordioa sinatu zuen munduko enpresa-bizkorgailurik handiena den MassChallengerekin, Bizkaiko ekintzaileak eta startupak berrikuntza-ekosistema globaleko merkatu, sare eta inbertsiogileekin konektatzeko.

Hitzarmenaren baitan, 2016an Beazek hemengo startupen lehiaketa bat antolatzen parte hartu zuen, irabazleak Masschallengek Bostongo egoitzan dauzkan bizkortze-zerbitzuak onuratu eta munduko finalaurrekora joan ahal daitezkeen.

Beazek bere gain hartu du lehiaketaren dinamizazio eta koordinazioa eta guztira 55 startupek esku hartu dute eta horietako 10ek munduko erreferentziako bizkorailua den Masschallengearen astebeteko egonaldia egin dute.

2016an, halaber, Bizkaiko Foru Aldundiak akordioa lortu zuen Massachusetts-eko beste erakunde batekin, CIC-ekin hain zuzen (Cambridge Innovation Center). Hitzarmen horren bidez 24 startupek 6 hilabeteko egonaldia egin ahalko dute CICen MassGlobal Partners-en tutoretzapean. Beazek aukera honen zabalkunde eta koordinazioan parte hartzen du eta horren ondorioz Bizkaiko 4 startupen lehenengo taldeak jada bizkortze prozesuari ekin dio CICen.



Bizkaiko Aldundia eta Telefónicaren arteko lankidetzaren eremua

Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Telefónicaren arteko lankidetzaren hitzarmenaren ondorioz, 2016an abian jarri da Bizkaia Open Future programa. Helburua da startup, ETE eta enpresa eragileei laguntza ematea 4.0 industriari lotutako teknologietarantz derrigorrez egin behar den bidean. Beazek, Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailaren foru erakunde legez, programaren dinamizazioan parte hartu du, bizkortze, trebakuntza eta berrikuntza irekiko ekintzak kudeatuz, guztira Bizkaiko 35 enpresak parte hartu dutelarik.

Azpimarratzekoa da azken lan-ildo hau, horren bitartez hiru enpresa erreferenteren erronkak plazaratu direlako startup eta ETEek konponbidea lor dezaten, lankidetzaren hitzarmenak ezarriz enpresa erreferenteek berri eta dibertsifikatzeko aukera izan dezaten eta startupek merkatuan gehiago sartzea lortu dezaten.



Eskualdeetako eragileekiko lankidetzaren eremua

Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailak, eta horrenbestez BEAZ, S.A.U.k ere, konpromisoa dauka ekonomia sustatzeko abian jarritako politiken norainoko eta inpaktu orekatua lortzeko. Helburu hori izanik, funtsezkotzat jo da beren enpresa-sarearen lehiakortasuna lortzeko lanean ari diren lekuan lekuko ekonomiaren garapenerako eragileekin lankidetzaren jardutea.

Horretarako, abian jarri da “Bizkaia Lehiakorra eta Lurraldeari dagokionez Orekatua” proiektua eta, horren baitan, Bizkaia 4 eskualdetan banatu da. BEAZ, S.A.U.ko eta Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Saileko lantalde tekniko batek eskualdeetako mahaietan lan egiten dute lekuan lekuko eragileekin batera, eskualde bakoitzeko lehiakortasuna bultzatzeko asmoz. 50 pertsona baino

gehiago elkarlanean aritu dira eta datozen 3 urteetan batera ekin beharreko erronkak identifikatu dituzte.

Ekintzaile eta enpresa berritzaileen errekonozimendua

ON Bizkaia enpresa sariak Bizkaiko enpresa txiki eta ertainak goraiatzeko gure lurraldean jardura ekonomikoa eta lanpostuak sortzen egiten duten ekarpenarengatik. Bizkaiko Foru Aldundiaren programa-deialdietan aurkeztu diren enpresen proiektuak saritzen dira, zenbait ataletan. startup eta spin-off-en ibilbidea ere saritzen da. 2016an hirugarren edizioa burutu zen:

Errekonoizimenduak emateko eta Bizkaiko enpresentzat interesgarriak diren gaiak aztertzeko, V. Bizkaia Enpresa Bilera antolatu zen eta 400 enpresak baino gehiagok parte hartu zuten.



Sorkuntza proiekturik onena	Kuaderno Solutions
Berrikuntza proiekturik onena	CMI Aeronáutica
Nazioartekotze proiekturik onena	Kautenik
Bizkaia Sortzailea proiekturik onena	Venture Moda
Spin off baten ibilbidea	ITP External
startup baten ibilbidea	Educaedu

Etekin operatiboa

2016an Beazek guztira Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailaren 9 programa kudeatu ditu. 300 enpresa baino gehiagok erabili dituzte Beazek ematen dituen zerbitzuak eta bere enpresa haztegien sarean 113 ekimen daude inkubatuta. Halaber, azpimarratzekoa da Beazek laguntza-programa edo zerbitzuen bidez harremana duela Bizkaiko 1.400 enpresa-multzoarekin.

2016	
Aurrekontu operatiboa (€M)	5
Batez besteko langile kopurua	43,5
Kudeatutako programak	9
Programetan kudeatutako M€	13,9
Kudeatutako espedienteak	841
Jarraipena egiten zaien espedienteak	1.118



Sabino Arana 8

48013 Bilbo

T. 944395622

beaz@beaz.eus

beaz.bizkaia.eus